

Nafarkaria

• ostirala • 1999ko abuztuaren 20a

Egunkaria

Gehigarri honetan

Aralar • Goñiko Teodosioren kondaira kontatuko du Truke taldeak etzi.

Luis Morea • «Intimitate handia dut nire lanekin».

Kintoa, jabeak ahantzi duen lurra



• JOSU SANTESTEBAN

Kintoa Nafarroa Behereko mugan dagoen kaskoa da. Baigorritik hegoaldera eta Erroibartik Iparraldera. Aldude haranaren hegoaldeko luzapena da, eta hari zegokion garai batean. Egun, Nafarroa Garaiko lurra da, baina, zergak hemen ordaintzen baditu ere, zerbitzuak eta azpiegiturak Frantziak ematen dizkio. Europako Batasuneko mugak desagertu diren arren, kintoarrentzako afera ez da hain argia, beren lurretan deus gutxi eman dietenek baitute eskubide gehien. Ahantzirik bizi dira, benetako mugak noiz eroriko zain.

Aralar ●

Herensugearen, aingeruaren eta hiltzailearen abenturak

Goñiko Teodosioren kondaira berrituko du Truke taldeak

Aralarko santutegira askotan joan arren kondaira ezagutzen ez dutenentzat eta kanpotik etorritako bisitarienentzat antzeppen ekitaldi bat egingo da igande arratsaldero San Migelen.



Aralarko santutegiko ataria izanen da kondairaren agertoki. ● LUIS AZANZA

VIII. MENDEKO KONDAIRA batek dioenez, bazen Goñi herrian Teodosio izeneko jaun bat. Soldadu lanetan aritzen zen gizona. Noren aurka aritzen ote zen ez dago hain argi, ordea. Batzuen ustetan, godoen aurka borrokatu zen, eta beste batzuek diotenez, arabiarrek izan zituen arerio. Gauza da, denboraldi luzeak ematen zituela etxetik kanpo. Teodosioren zalantza sortu nahirik edo, bat edo batek emaztea beste gizon batekin zebilela jakinarazi zion. Ermitau itxura hartu omen zuen agerpen horretan. Zitzu bizian zaldi gainera igo, eta

etxera bidean jarri omen zen, entzundako hura egia ote zen jakiteko. Etxera iritsitakoan, bere ohean bi pertsona bazirela ikusita, ezpataz hil zituen. Hilketa burutu orduko, ordea, emaztea agertu zen logelan. Hildakoak nortzuk ziren galdetu, eta Teodosioren beraren aita-amak zirela

erantzun zion emazteak. Hankasartzeaz oharturik, Teodosiok Iruñerako bidea hartu zuen, apezpikuarekin aitortzeko. Hark Erromara bidali zuen, penitentzia modura. Eta han Aita Santuak zera agindu zion: gerria eta oinak kateez lotu, eta horrela ibili beharko zuela mendietan ze-

har, kate horiek hautsi artean. Isil-isilik eta burumakur, penitentzia betetzen aritu zen Aralartik zehar. Egun batean, santutegia dagoen lekuan, herensuge bat agertu omen zitzaion Teodosiori. Gizonak, izututa, laguntza eskatu zion San Migeli, piztia hura alden zedin. Otoi egin eta berehala

agertu omen zen aingerua. Harekin batera, kateak hautsi ziren, penitentzia amaitu zen seinale. Horregatik aukeratu zuten Aralarko gaina San Migelen ohorezko eliza egiteko. Hori dio behintzat VIII. mendeko kondairak.

Kondairaren beste moldaketa bat aurkeztuko du, ordea, Truke antzerki taldeak, ondorengo lau igandeetan. Oraingoan hasi eta irailaren 12ra arte izango dira antzeppenok, santutegiko atarian, arratsaldeko 17:00etan.

Plazaolako Turismo Partzuegoak antolatu du ekitaldia, Mitxausenearen laguntzaz, bisitari gehienek santutegira iritsi eta kondairari buruzko xehetasunak galdetzen baitituzte. Horregatik otu zitzairen antzeppena egitea, eta Truke taldearengana jo zuten. Taldeak kondaira zaharra hartu eta bertsio berri-tzaile bat prestatu du.

Bestalde, gaur Lekunberriko Ayestaran hotelean 20ko hamarkadako urte eroak ikuskizuna emango da, 22:00etan. Ikusleak garaiko jantziekin agertzea eskatu da, ikuskizunaren sinesgarritasuna handiagoa izateko.

→ Urko Aristi

metropoli forala

FELIPE RIUS



Izen berri bat gehitu zitzaion lehengo egunean astero senideek herriko presoan argazkiekin ateratzen dituzten karteak. Hasiara batean, denek harririk begiratu zioten pankarta berria zermanari, eta une batez inork ez zuen deus esan, ezagutzen ez zuten presoaren aurpegia gogoratzen saiatzen ariko bailiran, argazkia ez zen aski nonbait. Gehienak deseroso zeudela zirudien; kartela zermana ikusia zuten herrian, baina ez zen behin ere haien inguruan mugitu. Azkenean, batek bota zuen: «Hori ez da sekula preso politikoa izan, droga eramateagatik atxilotu zuten nonbaiten, eta ez du eskubiderik gure anaia-arreben eta seme-alaben artean egoteko, haiek ideia baten alde borrokatu dute, aberri baten alde, eta zure lagunak dirua egin nahi zuen gazteak pozoinduz. Zoaz pikutara eta ez itzuli». Pan kartadun berria ez zen ikaratu eta are tinkoago eutsi zion urrutiko herrialde batean atxilotutako lagunaren argazki txarrari. «Nire lagunak ere ideia baten alde

Gauerdiko espresoa

borrokatu zuen, edo, nahiago baldin baduzue, bes-telako bizimodu baten alde, eta ez zuen inor pozoindu nahi, haxix piska batekin harrapatu zuten eta hogeita hamar urteko zigorra bota zioten dirurik ez zuelako. Orain, urrutien dagoen herriko preso da, eta, norbaitek zioen bezala, preso guztiak politikoak dira, beren burua lapurtzera behartuta ikusten dutenak, prostituitzen direnak, droga toki batetik bestera dararmatenak edo iruzur txikitik dabiltzanak, denek eskuratu nahi dute gizarteak, botereak edo suerteak eman ez diena; eta hauek ere zigorra jaioterrian betetzeko eskubidea behintzat izan beharko lukete». Gauean manifestari berriekin topatu nintzen taberna batean eta istorioa kontatu zidan. «Denak isilik geratu dira, eta deus gertatu ez balitz bezala, han segitu dugu denok pankartekin. Nik Midnight Express berriro ikusia nuen telebistan, eta bururatu zitzaidan Manu ere herriko preso bat zela, gogoratu nintzen, elkar gehiegi ezagutzen ez bagenuen ere,

gau batzuetan literaturaz hitz egiten genuela taberna batean topatuz gero; beharbada ez duzu jakinena, baina sari batzuk irabazi ditu eta liburu bat argitaratzeaz omen zuen. Bakarrak ibiltzen zen beti, eta hori arraroa da herri honetan. Bapatean desagertu zen eta egun batean Asia aldean txokolate piska batekin harrapatu zutela irakurri nuen. Zerbait egitea erabaki nuen, ezin nituen burutik kendu gauerdiko espresoaren zain dauden senide eta lagun guztiak». Tragoa hartu genuen eta nik kartzeletan eta sekula iristen ez diren tren fantasmekin pentsatu nuen. Hurrengo astean pankarta gehiago zeuden manifestazioan, goian presoaren izena idatzita eta, behean, Bangkokeko espeterren batean, Indian atxilotua, Malaysian preso, eta antzeko testuak. Manifestariaren isiltasuna urrutian pasa zen tren batek urratu zuen, baina bagenekien barnean ez zetoze inor eta ez zela herrian geldituko. Gauerdiko ordu batzuk falta ziren eta geltokia hutsik zegoen.

Lizarra • Nafarroako Jaialdien akabera

Asteburuan bukatuko dira, hiru kontzerturen bitartez

Bart Salif Keita maliarra aritu zen kanturik atzo. Gaur iluntzean, berriz, Albita kantari kubatarak abestuko du. Eta bihar izanen da Nafarroako Jaialdietako azken kontzertua: Margareth Menezes abeslari brasildarra igoko da trantpaldora gainera, jalei amaiera emanaz.



Margareth Menezes abeslari brasildarra itzuliko da bihar eszenetara Los Llanos pasealekuan. • ARTXIBOKOA

MEDITERRANEOKO MUSIKA ETA dantzak zikloan Grezia aztertu ondok, amaierako hiru kontzertu handi bildu dituzte *Munduko soinuak* lelopean, Nafarroako Jaialdien aurten ikusgai eta entzungai izanen diren azken ikuskizunak. Aste osoan, Greziako kultura gurera hurbiltzeko erakusketa eta lantegiak izan dira Lizarrako Fray Diego kultur etxean; Mediterraneoko musika eta dantzak aztertu dira, hain zuzen ere. Grezian

oso lotuta dago dantza eguneroko bizimoduari. Greziako nortasunaren adierazpidea da, antzinatik etorria etengabe. Gaur, senideen arteko jaietan (ezteietan, bataioetan, ezkontzeko mandatueta...) dantzatzen dira, herriko festetan eta, gaur egungo musikarekin batera, diskoteketan.

Unibertso ezezagun horretara hurbiltzearen, musika eta dantza lantegiak antolatuta dira. Orotara 40 lagun aritu dira *zirtos* dantza eta beste ikasten edo lauta eta klarineta jotzen. Bertetik, aipatu taillerren osagarri gisa, batetik, jantziak eta tradiziozko musika tresnak izan dira ikusgai,

eta, bertetik, argazkigintza materiala bildu duen erakusketa izan da astean osoan. Halaber, tradiziozko musikari eta dantzei buruzko hitzaldia eta lantegietan egindako lanak erakutsi dituzte. Horrek guztiak Mediterraneo itsasoaren ertzetako tradiziozko kultur aberatsenetako batera eramaitu, emeki-emeki.

Azkenik, Munduko Soinuei agur esatearren, atzo, gaur eta biharko kontzertuak antolatuta dira: sustrai-musiken barruko hiru artista ospetsu dira. Bart Salif Keita abeslari maliarra aritu zen, Los Llanos pasealekuko agertokian. Bertan, editatu berri-berriko -horrenbeste ezen Lizarrakoa izan baitzen lehen aurkezpena- bere azken musika lana auzkertu zuen Keitak. Gaur, aldiz, hamarretatik aitzina, Albita abeslari kubatarra ariko da kantuan. Albitak erbeste egindako *Dicen que...* disko abestiak aurkeztuko ditu, Julian Sierrak zuzendurik. Azkenik, 90ko hamarkadako reggae eta sambaren erregina itzuliko da bihar agertokira: Margareth Menezes. Horixe izanen da Munduko Soinuetako azken emanaldia, eta haren oihartzuna datorren urtea arte entzunen da.

→ Kristina Berasain



herri aldizkariak
Eduarne Elizondo

Herri txikiak biztanlerik gabe

Uda dela eta, **Ttipi-ttapa** aldizkariaren abuztuko aleak jai hartu eta herrietako festen egitarauen berri ematen du. Gainera, Lurra landa-lurraldeari buruzko aldizkariaren 16. zenbakia ere argitaratu du **Ttipi-ttapa**-k.

Aldizkaria, erreportaiaren nagusian, kezkatu ageri da inguruko herri txikiak gero eta biztanle gehiago galtzen ari direlako. Haur gutxi jaio eta adineko jendea galtzen ari den neurrian, eskualdeko herri asko bizitasuna galtzen ari direla dio erreportaiak. Gainera, komunikazio sare nagusietatik urrun daudenez, kanpoko jende gutxi biltzen ohi da herri horietara.

Bizilagunak ugaritzen edo urritzen ari diren ikusteak herrien bizia eta bizitasuna nolakoa den neurtzeko tresna balioetsua da, eta horixe aztertu nahi izan du **Lurra** aldizkariak: herrien osasuna. Agerkariak egin azterketaren arabera, herri txiki gehienek biztanle gutxi galdu dituzte, baina handienek biztanle gehiago dituzte duela urte zenbait baino.

Herri batean jaio eta zenbait urte bertan bizitzeak herri horrekiko atxikimendua sortzen ohi du, baina horrek ez du bertan bizitzen jarraitzeko nahikoa indar egiten, nonbait. Bizimodu egoki eta eroso lortzeko, lagun eta senideen ha-

rreman mundua ez ezik, bertzelako behar eta zerbitzuak ere behar ditu jendeak; horiek herrian ez badaude, errazagoa da herri handiago batera alde egitea.

Eta, erreportaiaren arabera, herri bategi herri moduan irauteko gutxieneko biztanle kopurua behar du, hori gabe jendeak behar bezalako bizimodua egitea ezinezkoa baita. Inguruko herriak oso txikiak dira, gero eta txikiagoak, eta batzuen izana etorkizunean ere kolokan dagoela dio **Lurra**-k. Erreportaiaren arabera, herri batzuetan neurriak hartu beharko lirake populazioaren beherakadaren kontra.



urdairen
mintzoa

Xabier Larraburu

Fantasmen Mehatxua

Aste honetan *Star Wars* pelikulen atal berria pantailaratuko dute eta, erremediorik gabe, lehendabiziko pelikula filmatu zeneko oroitzapenak datorzkit gogora: garai haietan ni Tunisian nengoen Sheraton Hotel ezin ederragoan liburu berri bat prestatzen. Kasualitatez, luxuzko hotel batean egon nahi izateari kasualitatea deitzen ahal bazaio, George Lucas eta bere aktore garrantzitsuenak han agertu ziren. Basamortuan errodatzen ari zirela esan eta dutxetara abiatu ziren. Hiru aste horietan osatu genuen familia nahiko berexia izan zen. Ez zen ordea errega izan. George, gidoiarekin borrokan, desesperaturik zebilen: "Xabi"-esaten zidan- "emaidazu ideien bat, agorturik nago!". Nik ea pelikula zertaz zen galdetu nion. Esan zidan bi txakur espazialen abenturak zirela. Tin eta Ton. Ez zitzaidan batere gustatu. Gau guztia eman genuen hoteleko tabernan. Nik androidez hitz egin nion. Espazioko erlijio bat zirriboratu nuen bat-batean, zaldun galaktiko batzuk agian... Berak notak hartzen zituen: "Maskara beltza!, segi, Xabi, segi". Beste gau batean gazte mozkortu bat aurkitu nuen billareetan. Gerora Harrison Ford esango genion gazte hari, baina garai haietan oraindik ere Paco Jimenez zen guztiontzat. "Zer duzu, Paco", esan nion. "Paco!, jajaja, konfunditu zara gizona, ni Tin txakur espaziala naiz!", erantzun, eta botilari beste trago bat kendu zion. George Lucasengana bueltatu eta "apuntatu, George: kontrabandista espazial bat, Paco egingo du", esan nion. Eta horrela gutxi-gutxinaka pasatu ziren egunak. Pilatzerakoan urte bihurtu ere bai. Iaz Georgeren etxean egon nintzen. *The Phantom Menace* pelikula berriaren pase berexia ikuste nahi zuen. Biok bakarrik geunden. Bukatzerakoan, "eta?..." bat zintzilikatu zuen airean. Nik, esku artean nuen *yellowmissipi* koktelari trago bat kendu eta irribarre bat eskaini nion. Berak, pozez txoraturik, botoi bat zanpatu eta mikrofono bati: "Aurrera, banatu!", esan zion. *The Phantom Menace*. Indarrak lagun zaitzala! ●

Kintoa: jabeek ahaztutako lurra

Nafarroa Garaiko parajea bada ere, Nafarroa Behereak eman dio beti azpiegitura eta babesa

Kintoa Nafarroa Behereko mugan dagoen kaskoa da. Garai batean Aldudekoa izana, egun Nafarroa Garaiko lurra da, baina, zergak hemen ordaintzen baditu ere, zerbitzuak eta azpiegiturak Frantziako administrazioak ematen dizkio. Europako Batasuneko mugak desagertu diren arren, kintoarrentzako afera ez da hain argia, beren lurretan deus gutxi eman dietenek baitute eskubide gehien. Ahaztuak bizi dira, benetako mugak noiz eroriko zain.

Kintoa toki lasaia da: inor gutxi pasatzen da Nafarroa Behereko mugan dagoen kaskotik behera Euzpirantz doan errepidetik, zeina bihurgunez josita dagoen eta pagoak nagusi diren oihan bat zeharkatzen duen. Aldude haranaren hegoaldeko luzapena da Kintoa, Baigorritik hegoaldera eta Erroibartik iparraldera. 2.500 hektarea ditu, eta 30 hamar lagun bizi dira, zortzi familian banaturik. Laborantza dute ogibide; ardi esnea ekoiztetik bizi dira. Oihana eta larea da gehiena. Benta ere badute, garai batean muga zen seinale. Gutxi eta nahiko barkatuak bizi dira, eta arazo franko izan dute beti. Nafarroa Garaiko lurra bada ere eta zergak han ordaintzen badituzte ere, Nafarroa Behereak eskaini dizkie azpiegiturak, eta hara begiratzen dute Iruñera baino gehiago. Pello Setuan Aldudeko alkate da joan deneko hamar urteotan; kintoarrak Urepelekoak direla dio, nahiz eta paperek besterik dioten. «Espainiako lurra da, baina, zergak ere han pagatu arren, Frantziako Estatuak jarri die duten azpiegitura. Pirinioetako tratu bitxi batzuen ondorioak dira. Duela zenbait urte Baztan eta Errok mankomunitatean erabiltzen dute», azaldu du. Setuanek dioenez, «jendeak Urepeli lotuak dira gehiago, ez dira biziki harreman sendoak Nafarroarekin».

Hala ere, agerian da mugak irauten zuten garaian toki garrantzitsua zen seinale bat: orain bi urte Guardia Zibilak zutitako kuartelak han segitzen du, itxirik baina zutik, Sorogaineko bidean.

Jean Pierre Erreka:

«Gu nahi gaituzte zergak pagatzeko, eta gero dena kentzen digute. Hori ez dago ongi. Lehenago eta tratatua egin zelarik, 1856an, bazeuden problema handiak bailaren artean, eta Frantziak eta Espainiak egin zuten arbitraje bat eta mugaren delimitazionea, eta hemen gelditu zen lur hau, Nafarroarako eta Baigorrikoek bazkak erabiltzeko soilik»

Eskatu bai, baina eman gutxi

Bitxia da oso kintoarren egoera. Paperean Espainiakoak direla esaten zaien arren, eta zergak Elizondon edo Erroibarren ordaindu arren, deus gutxi eskaintzen diete ordainean. Azpiegitura guztiak Frantziak emanak dira, eta askotan Espainiako agintariek traba anitz jarririk. Mari Antoine Etxebarren Urepeleko alkateak gogoratu duenez, «elektrika» 1979an iritsi zen Kintora, dauden baserrietara errepideak 1981tik goiti egin ziren, eta telefonaren haria 1984an jarri zen. Hori gutxi balitz bezala, zerbitzuak ere Nafarroa Beherefik jasotzen dituzte maizago. Adibidez, hango postaria egunero joaten da euren etxetara, eta Nafarroa Garaikoa, al-diz, astean bitan bakarrik joaten da. «Erreserba gisa nahi zuten Kintoa. Jendea adin batean jartzen ari da eta sosik ez biziki, eta nahiago zuten jendea hortik bidali elektrizitate faltan eta erraztasun, eta hona etortzen ziren elizara ere. Hemen izan dute harremana eta familia», argitu du Etxebarrenek.

Garai batean Kintoko lurrak Baztangoak, Erroibarkoak eta Baigorriko haranekoak ziren. Baina bailaren arteko haserreak izan zirenean, Espainiako eta Frantziako estatuek kendu egin zizkieten eskubideak. Atxiki zituzten eta 1986 urtea arte Espainiak kudeatu zuen, gobernadore zibilarren eta militarren bitartez. «Baldin bazen zerbait Kintoan egin, Gobernu Zibilarren baimena eta militarrena ere behar zen. Orduetik goiti Nafarroari itzuli zizkion Kintoko dretxoak eta geroztik, sei bat urtez edo, Nafarroako Mendi Sailak kudeatzen zuen», jarraitu du alkateak. Baina Erroibarrek eta Baztanek beti galdetu dute lur horien gainean aurretik zuten eskubidea, eta 1992tik goiti mankomunitate bat sortu zuten. Baigorri ere izanen zuten lur horien gozamina, baina urtero 10 milioi pezeta ordaintzen dizkio (400.000 libera).

Beren uesteko jabeak ahazturik, Kintoko jendeak, Urepelekoak bezala, geroa aski kezagarri ikusten du. «Gazteek lan egiteko labo-



Mari Antoine Etxebarren Urepeleko alkatesa. ● JOSU SANTESTEBAN



Ga Zibiltzeak zireu oraindian, gaitiko aginturak. Etxearen, Nafarroa Garaiko bantzen

rantzak ez du biziki emateri; behar lirateke lanpostu batzuk hemen. Bai kintoarrendako eta bai urepeldarrendako. Etxaldeak tiplak dira, eta gero eta nekezago bizitzen da laborantzatik. Emaztea edo gizona kanpoan ari bada, jornal bat ekartzen du. Hori behar litzateke eskuratu», dio Mari Antoinek.

Ehiza: azken urteotako gatazka

Kintoko lurraren gozamen eskubideak sortutako arazoak moldatu baziren ere, orain afera ehiza da. Baztandarrek eta erroibartarrak Kintoaren gaineko eskubideak eskuratu zituztenean, Frantziatik izaten zuten ordainketa interesantea zen. Gain horretan ehizarako tokiak ere badira, eta aspalditik aritzen dira elizondoarrak, erroibarrak eta kintoarrak. Orain dela 40 urte baino gehiago ehizako

erreserba bat egin zuen Nafarroak, Espainiarekin elkar harturik. Hura egitean, barnean sartu zituzten kintoarren etxetako lur pribatuak, eta debekatu zieten hor ehizatzea kintoarrei. Ordainean lepo bat eman zieten, Pe-

lono izenekoa, hamar bat lagunentzat edo, Kintoko ehiztarien arabera. Hortaz, kito ziren horrela. Baina Baztanek eta Erroibarrek diru gehiago egiteko Pelono ere enkanteara atera zuten. Dirua asko eskaintzen da po-

Aspaldiko hitzarmenen ondorio

Aspaldiko hitzarmenen ondorioa da Kintoa. Lehenengo hitzarmena, Pirinioetakoak deitua, 1659an egin zen. Nafarroa desegin zen denboran, Frantzia eta Espainiaren arteko muga egin zen denboran sortu ziren bailaren arteko gatazkak mendiok zirela eta. Baztan, Erroibar eta Baigorriren artean, denek nahi zuten mendi horietan eskubideak atxiki. 1785ean Elizondoko hitzarmena sinatu zen. Baztan, Erroibar, Luzaide eta Orreagako batetik, eta Baigorri eta Garaziren arteko liskarrak leuntzeko. Hala ere, paperean zegoena ez zen errealitate bilakatu eta Espainiak eta Frantziak «behar izan zuten sudurra sartu», alkateak gogoratu duenez. «Baionako Tratatuak egin zuten 1896an, eta muga ezarri zuten. Baina ez ziren konturatu muga hura non ezartzen zuten, lekutatuta gertatzen zen mendi kaskoetarik behitago, zeharka trabesian gertatu zen muga ematea; aziendak ez dituzte errespetatzen planoetako marra horiek eta joaten dira kaskoetaraino. Aziendadunek ez zuten hori errespetatzen. Deliberatu zuten

orduan terreno hori Baigorriko baleak ere gozatu zuela betikotz», azaldu du. Beraz, Baigorriko laborariek eta artzainek gozatu dute horko bazka, salbu oihanak, arbolak. Horiek beti Nafarroak saldu eta kudeatu ditu. 1990tik goiti mankomunitatean kudeatzen dute Erroibarrek eta Baztanek. Urepeleko auzapezak Baigorri ere sartzea galdeginen liekeela dio. «Ontsa litzateke adostasunean denak sartzea». Kintoko lurrekin ez ezik, Guardia Zibilarren etxearekin ere zerbait egin beharko dela dio. «Denon artean Kintoko etxe bat edo museo bat egitea. Proposizionea egin dut. Laguntzak badaude bi aldeetako harremanak lantzeko Europatik».

Baina dena ez da txarrerako izan Kintoan, Iparraldeko hainbatek bizia salbatu baitzuten munduko bi gudetan. «Mugaz bi aldeetan badira biziak salbatuak, badira desertatuak. Kintoan gordetzen ziren eta hortik Ipar Amerikara joaten ziren. Zenbait itzuli, eta beste asko han dira. Bizi asko salbatuak dira horrela», ekarri du gogora.



Mari Antoine Etxebarren Urepeleko alkatesa. ● JOSU SANTESTEBAN

Mari Antoine Etxebarren:

«Erreserba gisa nahi zuten Kintoa. Jendea adin batean jartzen ari da eta sosik ez biziki, eta nahiago zuten jendea hortik bidali elektrizitate faltan eta erraztasun faltan»

oraindik ez dute beste erantzunik jaso.

Afera auzitegieta

Hitzak balio ez, eta auzitara eman dute afera. «Orain tribunalerara joanen gara; Espainiara eta gero Europara joanen gara ez badute errespetatzen», dio, serioski, Kintoarrak taldeko buruak. Ehiza ez ezik, artzainak ere ez omen dituzte bakean uzten, dioenez. Artzainek, hiru bailarek duten hitzarmenaren arabera, Kintoan egurrezko etxolak izateko eta ardiak bazkatzeko eskubidea dute, baina azken urteetan hainbat arazo sortu dira horren kontura. «Gu nahi gaituzte zergak pagatzeko, eta gero dena kentzen digute. Hori ez dago ongi. Lehenago eta tratatua egin zelarik, 1856an, bazeuden problema handiak bailaren artean, eta Frantziak eta Espainiak egin zuten arbitraje bat eta mugaren delimitazionea, eta hemen gelditu zen lur hau, Nafarroarako eta Baigorrikoek bazkak erabiltzeko soilik», ohartarazi du Erreka. «Gu trabatuko gara, Hiriko jendearen arrazoinamendua hori. Honat bizitzera etortzeko esanen nieke, nola den bizia ikusteko. Gure lepoa dirua duenari eman diote. Denek dirua nahi dute», salatu du behin eta berrito.

Gutxi dira eta bakartuak daude, eta, ehiza postuak kentzeaz gain, artzainen etxolak ere puskatu dizkiete. «Artzain baten etxola, tratatuak esaten duen bezala, taulaz egina zen, eta hura artzain batentzako eman zuten Baigorri. Baina hatak igorri guarda, korralea hautsi, eta baimena kendu zioten», gaineratu du. Horrela joan deneko zazpi-zortzi urtetan dabilta, eta eskatzen dutena da artzainen ardiak trankil uztea bazkatzen ehiza garaietan. «Badago tratatua eta ez gara jostetan ari. Eskatzen dugu gure eskubideak errespetatzea».

Migel Jorajurria arraioztarrak ez du hain besteko arazorik ikusten. Duela hamabi urte Kintora etorria, berak ez du uste Kintoko lurrak erabiltzen dituzten hiru baleen arteko gatazkarik dagoenik. Bentarekin ongi doakioa dio. «Beti jende pixpa bat badugu. Ongi moldatzen gara baztandarrek eta Erroibarrek. Ehizara eta etortzen dira honat», dio, eztabaida salhestuz.

→ Irene Arrizurieta

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Olloko eskoletan gertatua

Ahitzera doan mende honen asmenta urteetan, Ollarango hiriburu pertxentean, eta inork espero ez zuenean, beste edonon ere zoritxarreko zat eduki dezaketen gertaera jazo zen, hau da, herriko eskola kiskaldu zen esku ezezagun batek iratxekirik



EZ ZEN HURAXE USTEKABEKO sua, igandez igande urrantzen ari zena baizik, eta inor gutxi harritu zen Olloko eliz ezkilek goraki suaren berri eman zutenean, izan ere, ez baitzen eskolaren kontrako erasorik espero ez zuenik, geroago, kea zerioten auri erraustuen aurrean ollarigo guztiak damuz eta isilik egonagatik ere. Bestalde, ikastetxea berreraikitzea garesti atera zitzaion herriari, eta 1923.ean 209 haritz enkantean jarri eta saldu egin ziren gastuei aurre egiteko. Handik denbora batera, lantokirik gabe geratutako eskola maisua Abadetxe eta Otxotorena etxetzarren arteko inda estuan egokitzen zen Juan Felix Uhartte artzaiaren etxetxoan zendu zen, amorrerak atsekabaturik, 1926.eko maiatzaren 30ean.

Maisu hark Pedro Matias Mariñelarena zeukan grazia, eta Izurdiagan

jaioa zen, nahiz bere gurasoak Arakil ibarrakoak ez ziren, bada, aita, Martin Mariñelarena Gulina aldeko Ziakoa baitzen, eta ama, berriz, Itzako Zendearen dagoen Larunbe herrixkako alaba. Mariñelarena 70.eko hamarkada inguruan arribatu zen Ollora, maisu tituludun, alabaina, bertako eta Senosiaingo haurrei irakasteak ez zion behar beste ematen, eta lanpostuarekin batera, ohi bezala, bazen beste zereginik, seguroenik ere ez sobera atsegin, baina betiere, diru sarreraren emendagarri; hauek ziren bi herrietarako sakristaua, idazkaria eta aguazila lan-postuak. Egin-behar guzti hauek zintzo betetzeagatik, 1878.ean, maisuak 121 errege gari jasotzen zuen urtean. Soldata urria bazen ere, Mariñelarena ez zen ezkongabe geratu, eta bera baino dexente gazteagoa zen Katalina Irurtia Zenoz Ekai herrixkako alabarekin ezkondu zen.

Olloko eskolari buruz ez zaigu gauza haundirik iritsi, 1940.eko maiatzaren 20an bertako Hezkuntza Batzarra sortzen den arte bederen, edozein modutan ere, aisa asma dezakegu nolakoa zatekeen urte hori baino aurreragoko eskola; hasiera batean, elizan biltzen ziren bi herrietako neska-mutikoak, kalostreparen parean zegoen mendebaldeko gela txikian; huraxe urri geratu zenean, plaza ondoko eraikinean ezarri zen berebiziko ikastetxea. Mariñelarenak bietan ihardun zuen irakasle, eta bere ardurei esker, esate baterako,

eskola zaharrean komuna ezartzea onartu zuen Olloko kontseiluak 1911.eko abuztuaren 28an, erretorearen baimen mesfidatiarekin izanirik ere. Mariñelarena maisuarekin ezain jokatu zuen apez etoi hura, bestalde, ausaz Olloko abadetxetik pasatu izan den pertsonalitate sendoenetako apezia izan da, errainu luzeenetakoa, Santos Ziaz ari gara, naski. Saratsan 1845.eko azaroaren 2an jaio, 1872.ean Iruñean apeztu, eta 1874.ean Olloko parrokiara iritsi zen Arteta eta Itzako Erizetik pasea izan ostean. Olloko honetan, 1911.ean hil zen arte iraun zuen bertatik elki gabe. Apez lanez gain, izen ez hain apaleko publizista eta orduko hainbat kazetetan kolaboratzaile finkoa zen; Santos Ziak idatzia da, esate baterako, 1889.eko San Migelgo erromeria erraldoiaren berri ematekoak ziren hainbat artikulu.

Ez da iritsi Santos Zia eta Matias Mariñelarenaren artean zegoen herra makurraren berri zehatzik, eta hainbat agrietan bi izenak, bata bestearen elkarren ondoan irakur daitezke, maisuak sakristau moduan bete behar zuen lana zela bide, prefosta; honen adibidea 1891.eko maiatzaren 27an Olloko elizan agitu zen lapurreta jasotzen duen agiria izan daiteke. Alabaina, gauza



ezaguna da biek elkarri zioten mespretxua, eta frogaz ezin esanguratsua dugu eskolarekin gertatutakoa. Erretorearen ideologia elizkoientzat, Matiasen pentsamendu

liberala orban ikuzgaitza zen Ollo bezalako herri aratzean; baina liberalismoarena gutxi baillitza, Matiasen bigarren obena euskarari zion maitasuna zen, eta bigarren hau, naski, Ollo bezalako herri oraino euskaldun batean, gehiegi hauspotu gabe aisa piztu eta zabal zitekeen garra zitzaion Saratsakoari.

Herri bakoitzeko haurrak euren hizkuntzan hazi eta hezi behar dutela arras sine-tsirik, eta oro har euskara pairatzen ari zen egoera tamalgarriaz oharturik, Matiasek geroz eta tarte luzeagoa eskeintzen zion euskarari bere eskoletan, eta tarte hauetan erabiltzeko asmoz, jada hasia zen entziklopedia moduko bat bertako euskarari tajutzen, ikastetxea erre ziotenerako ia bukatuta zekana. Damuz, Mariñelarenaren esku-izkribu guztiak suak eraman zituen, eta ez da, Etxebertzeekin gertatu zen antzera, garretatik erauzi zituena.

etorri ahalean

Patziku Perurena



Amarkintako hiztegia

ARAKAI: HIRULAU (edo bosei) hilabete aurretik begia emana eduki du artzaiak artaldean, akatsen bategatik haragitako bereiztua; nere ume denboran artantzua aharikoa, zikoroxka, alondoa eta holakoak izaten ziren endemas arakaitako Goizuetan, jeneralean ardia baino larrixagoa eta haragi gehiagokoa, baina oso nekez, orain bezala, bildoski guria. Halare, errestorik ez uzteraino garbituko zen dena; larrua pestondoren eramango zuen Ezkurreko Trapuk, eta arakaia adaskaria bazen, han geldituko ziren adarrak sotoko pareta zuloren batean, bihar edo etzi sepapotoa edo zena zelakoa zintzililik patzeko.

Banda: Garai batean, herri gutxitan bezala, bertako musika banda ere izaten zen Goizuetan. Aitari aditua dakit nik: "Joxejoan Maiokoa, Arontxan Joantxo, Paulenekok bi anaia: Xanti ta Isidro, Inazio Yandenekoa, Kaxkagorri txindakin, Pako Miruna tronbon aundikin, Abelardo Maribeltzana tronpetakin, eta geioz enuk oroitzen oaiñ, eta Botikario zena, gizon pilako polit bat yuen, gidari ibiltzen zutena". Goizuetako bandaren pieza zahar bat ikasi berria dugu Leitzañan, Fermín Tolatxenekoaren belarri finari esker.

Eltzeitsua: Pazkoak ezkerotik gordetako sos pizar batzuk ipurdian, klin, klan, klon, apenas izaten genuen besterik mutikotan. Amarkin bezperan, atera sos guzik, eta munduko aberatsenak ginela iduritzen zitzaigun. Baina ama semeen arratsaldean zen, Xole eta Anamari ixpiluaren aurrean apain apain orraztu, ezpainak pinta pinta egin eta, abiatu dira herri aldera. Amak koarto zaharreko leihotik oihua: "Zeren eltzeitsuri kontu gero ongi, nere mattek". Artean ez baitzen oraindik, "póntelo pónselo" kanpainarik egin.

Pilota partida: Amarkin egun goizean, meza nagusi on-

doren, nola ez, pilota pilota partida Lubineko Pilotaplazan: Berroeta eta Arantxan Pello, Intziarte eta Antonio lesakarren kontra. Intziartek tongo egin eta jendea haserre. Amarkin hirugarrenean berriz, Aranoarrak Goizuetarran kontra. Han etorriko zen mendiz mendi aranoar koadrila, Ilagorrikobordan beheiti, Anastasio Leontxonbordakua kordionakin zutela. Hasi da partida, "Aranoarrak: Perutxo eta Joakiñ Bordatxurina; Goizuetarrak: Zabalteneko Joxemari ta Erreteneko Ezkerra, ittuen aitezkok, biño, Ezkerra gaupasa iña do, ezongi samar ta, Urrutineko Manolo aittu yuen".

San Roke: Amarkin biarrena San Roke egunarekin tokatzen da, eta goizuetar askok izaten zuen ohitura mendiz Aranoko San Roke ermitara joateko, pesta eta debozioa nahastuz. Joxemari Legarreta aranoarrak badaki nor zen San Roke: "Gaitz eta peste eta olakon kontrakua da. Frantzesak, Montpellierkoa. Ordun Italin pestia men tzeon, jendea larrua joan eta aragi bizittan da ola. Ta San Roke orrek oei urte zittula ro, atta ta ama galdu ta, zittun intesak entregatu denak pobreei ta joan emen tzen Itoliko eri aik sendatzea. Ta an urtiak pasa, ta gero beak izurriya arrapatu, ta eritik baztertu ta itturri baten bazterrian sondu men tzen, ango urakin garbittuz eridak sendatu zizkan arte; jateko berriz zakur batek eamaten men tzion obiya. Sendatu zenian, San Roke oi etorri da bee errira ta iñork ez izautzen, da bee osaba izan ango gobernadoria, ta kartzelan sartzeko aindu, ta kartzelan ill men tzen. Ta bularran gañian gurutze gorri bat emen tzun jaiotzekuan, da ill zenian artatik izautu amon batek noren semia zen!".

Xexenak: Munduan diren onenak, zizt eta zazta... Ernanioko gaiteroa, Pio Plazenekoa atabalero, Urnitako erroskilerok, Gazta ustela, Udare egozik, Amarkin Sagarrak... Motz gelditu zait, alua, hiztegia.

Ziria

• Motxorrosolo •

Donaixti

EZ DA AFERA BERRIA. ERDI-HUTSIK DIREN IBARREK, TARTEKA, URTEAN behin gehienetan, ikuskizun erraldoiren bat egin behar. Kapableak direla erakutsi nahi edo. Bizkitartean, urtean zehar, hutsaren hurrengo herri horien bizitasuna. Donaixtikoko berriak bestelako pleguak erakusten dizkigu, bere txikitasunean, urtaro guzieren pizgarria izanen baita.

Luis Morea

Sortzailea

«Intimitate handia dut nire lanekin»

Luis Morea artista uhartearrak, harria, burdina eta ura erabiliz, lau metroko luzerako eta 6 tonako monolitoa jarri du Erriberako Santacara herriko plazan. Edozein materialekin lan egiten duela aitortu du, eta sortzen dituen artelanekin oso harreman intimoa duela dio. Orain, garai bateko hiru nekazari irudikatu ditu.

iruditzen zait; nahiago dut *sortzaile* hitza, zure lanak sortzen dituzulako. Artistak ez duela saltzen egia da. Nire lan asko partikularren eskuetan daude. Oso bitxia da, inoiz ez dudalako izan aukerarik horretarako egokitua den areto batean lanik erakusteko. Baina beste eskultore askok baino lan gehiago saldu ditut partikularren artean. Arte megalitikoarekin eta arte garaikidearekin identifikatzen dut nirea, batez ere figurak.

■ **Ez baduzu zure lana non erakutsi, zein funtzio du zure eginkizunak?**

Inoiz ez diot uko egin galeria batean erakusteari, baina oso zaila da hori lortzea. Galeriak mundu itxiak eta zentzugabeak dira. Horregatik, senak beste gune batzuetara eramaten nau. Orain Sarasate pasealekua eskatuko dut, eta ez

..... ●

«Galeriak mundu itxiak eta zentzugabeak dira. Horregatik, senak beste gune batzuetara eramaten nau»

..... ●

badidate ematen, kontzentrazio bat egingen dut. Ixten dizkizuten ateak ez badituzu beste modu batean zabalitzen, zure lana uztera behar izaten zaituzte.

■ **Orduan, zer zara? Eskulangilea, artista, ideia sortzaile...?**

Sortzaile. Nire lanak bizitzaz mintzatzen dira eta nahi dudana esaten dut. Hori ezin dit inork galarazi. Maitasuna irudikatzen txotxongilo bat egin izan dut, maitemintzen zarenarekin txotxongilo bihurtzen zarelako; *Miloi bat klase* tituludunak -txirook izan ditugun mahaiek eta zilarrezko kaxa batek osatua- espesxeak islatzen du.



● JOSU SANTESTEBAN

BERAK ESAN BEZALA, OSO barneratuak ditu bere lanak, eta poliki-poliki mintzo da haietaz. Eskarmentua nahikoa baduela uste du, eta egiten dituen obrak izanen dituela ogibide adierazi du.

■ **Nola otu zitzaizun lan hori egitea?**

Santacarako Udalaren agindua izan zen. Erromatarrek harria ateratzen zuten herriko harrobitik atera genuen harkaitza.

■ **Urarekin, harriarekin eta burdinarekin jokatzeko duzu; zer adierazteko?**

Harkaitzari ura sartu dugu, ur jarria sortuz. Ez diot izenik jarri piezari, eta kosmosaren energia zentro batean kokatzen dut. Bakoitzak interpreta dezala nahi duen bezala. Herri horretan bada oso dorre luzea, eta, harriaren inguruan bira asko eman ondotik, mila kilo burdina eramane nituen hara, eta saiatu nintzen orain den pieza egiten. Bi hilabete eta erdi aritu naiz lanean monolitoa dagoen tokian, zuzenean. Nekagarria izan da, bero handia egiten zuelako. Hiru nekazari irudikatatu ditut.

■ **Helburu argirik bazenuen lana egiterakoan?**

Lanak zuzenean egitea gusztatzen zait, eta modu hori jorratu nahi dut. Askok kostatu zitzaidan lan egiteko modu hori lortzea, aurretik Udalak zirriborro bat nahi zuelako. Nire nahia pieza zuzenean egitea zen, eta sentitzen nuen

heinean eraiki nuen. Harkaitzaren inguruan gogoeta handia egin dut, pieza bukatu nuen arte. Arte megalitikoarekin eta arte garaikidearekin identifikatzen dut lan hori.

■ **Zergatik uztartu dituzu harria, burdina eta ura?**

1991tik zakarretatik hartutako elementuekin lan egiten ari naiz. Kongora, Brazzavillera egin nuen bidaia batean urte bat egon nintzen. Han ez hondakinik ez zakarrik ez zegoenez, moldatzeari utzi nion. Hemen, aldiz, edozein zakarrentzirekin, egurrekin, harriarekin murgildu nintzen sortze modu honetan.

■ **Denbora luze egon zinen Kongon?**

Kasik urte bat.

■ **Zertara joan zinen?**

Lagun batzuek gonbidatuta, rally batera joan nintzen, eta oihanean gelditu nintzen.

■ **Han asko sortu zenuen?**

Ez. Han bertakoen kultura irudikatu nuen, eta hara eramane nuen irudipenari beste ingurune bat eman nion.

■ **Zein material nahiago izaten duzu lanerako?**

Edozein gauzak balio du. Margotzeko ere kolorea ematen duen edozer erabiltzen dut; ez dut margo berezirik behar: loreak, emakumeen pinturak, denak balio du.

■ **Artista kontzientzia izateak ez duela saltzen esaten duzu. Zer da artista kontzientzia izatea?**

Ez dakit zer den artista izatea. *Artista* izena oso legala

■ **Zein harreman duzu zure lanekin?**

Intimitate handia dut nire lanekin.

■ **Horrek zer esan nahi du?**

Oso sakona da. Ez nuke asmatuko azaltzen.

■ **Eskultura lantzeaz gain, margotzen ere aritzen zara.**

Nire margolana ere espazioan oinarritzen da.

■ **Nola ekiten diozu lan bati?**

Burua biraka darabilkit etengabe. Pieza bat irudikatzea lau hilabete kostatzen zait batzuetan. Gauzak piltzen ditut, begiratu, eta, bat-batean, irudikatzen dituzu, baina ordurako bizitza oso bat eman duzu lanean hori gauzatu ahal izateko. Kaleen moldaketa lanak egiten ari zirenean, serie oso bat egin nuen Iruñeko Alde Zaharreko galtzadarriak erabiliz. Lagunek gauzez eskuratu zizkidaten eta sail polita egin dut.

■ **Aurrerantzean zein asmo dituzu?**

Mallorcara joateko asmoa dut, esparru berriak ikertzeri. Piezaren bat kokatu nahi nuke han, jendearekin kontaktuan egotea gustatzen zait lanean nabilenean.

→ Irene Arrizurieta

soslaia

Luis Morea Iruñerriko uhartearra da, eta familiatik datorkio artista senna. Arreba zaharrenak eskulturak egiten ditu, eta amak margotu egiten du. Patxi Buldainen lantegian ibili zen ikasten. Egin dituen hainbat bidaia lagungarri izan ditu lanearako. Duela urte batzuk egiten duen lanaz bizitza erabaki zuen. Sos herrian, Zaragozan, lantegia jarri du, zaharberitzen ari den etxe batean. 37 urterekin ez du ez Nafarroan ez beste inon gelditu nahi. Kongoko oihanean ikasi omen zuen zer den bizitza.

Beti bere kabuz ibili omen da. Artean murgildu aurretik denetarik egin du. Bizitza du gustuko: "Zeure buruarekin ongi egotea, eta hori komunikatzea", azaldu du.

Buhame samarra da, eta ez zaizkio katalogazioak gustatzen. "Inor ez da zein zu katalogatzeko. Kritikek sofriarazten dizute. Galeria batean bezala da. Ez bazaude zure lana ikusleari argitzeko, zure lanaren erdia ulertu eta ikusiko dute", dio. Agintarien jarrera ere kritikatu du. "Orain, Iruñean erakusteko, burusoila eta New Yorken egona izan behar duzu. Nahiz eta hemen egindakoa erakusten duzun", azaldu du etsirik.



Nafar Kronika

Pello Goñi

Nafar sena

Ni nafarra naiz, Eneko Ariztaren leinukoa, baskoi, hortaz, eta nire aberria Nafarroako Erresuma da, gaur egun Euskadi deitu duten fikzio hori barne, jakina. Ene herria bihotzean daramat beti toki orotara. Mundu zabalean oso ibilia naiz, beti eskuan bandera gorri kateduna harro jatorik eta ez zait ja ere leundu nire nafar sen hau, hainbat tokitan jendearen mirispena piztu duena. Egon izan naiz Babilonian eta Afrika beltzean; egon izan naiz Ameriketean, Iparreko hiri zibilizatuetan nahiz Hegoaldeko oihan misteriosuetan; nabigatu izan dut Baltikoko ur hotzetatik eta Melanesiako itsaso lasaieran; Petrogradotik Vladivostokera eta Damaskotik Singapurrera joana naiz; Ezagutzen ditut Ekialdea eta Mendebala, Iparra eta Hegoa, beren portu eta hiri nagusiekin. Hori guztia ikusi izan dut nik eta, orain arte, ez dut Nafarroa bezalakorik topatu. Horregatik harridura gelditu nintzen lehengo egunean halako batean ezagun bat etorri zitzaidanean esanez nafarra izateari utzi nahi ziola eta tramiteak hasiak zituela. Aspertuta zegoela, asebeste nonbait, nafar senaz. Orain afera Diputazioan estudiantzen ari omen dira, lehen aldia baita inork horrelakorik eskatzen diena. Neretako, ezinezkoa da gixarajo horren nahia. Nola utzi, bada, nafarra izateari? Hori litza-teke beltza edo zuria izateari utzi nahi izatea bezalaxe. Ezinezkoa. Argi dago. Ez eta Michael Jackson izanda ere. Izan ere, zerbait nabarituko baitzaie beti: bati belztura puntu bat eta besteari... besteari barrabilen tamaina. Izorra bedi.

gure aukerak

KONTZERTUAK

- **Otsagi:** Ganbara taldea. Bihar, frontoian, 22:30etan.
- **Alegi:** Iratxe ardotegian, Melodias de Baco egitarauaren barnean, Chaikowsky Seikotea ariko da, 21:00etan.
- **Erpronkari:** Julian Gayarre museoan, Eduardo Cle tenorearen eta Miguel Sesma piano jolearen emanaldia bihar, 13:00etan eta 18:00etan.
- **Lekunberri:** Joxean Goikoetxea eta Juan Mari Beltranen emanaldia bihar, frontoian, 22:00etan.
- **Irantzu:** Irantzuko monastegian Ensemble Durendal ariko da etzi 12:30etan eta 19:00etan Passemazzo.
- **Corella:** Javier Garaialdek eta Raimon Garcia All Jazz Groupen kontzertua gaur.

ERAKUSKETAK

- **Zangoza:** Faustino Aizkorberen lanak ikus daitezke abuztuaren 25a arte Kultur Etxean, eta Donejakue Bidearen inguruko margoak irailaren 12ra bitartean.

ANTZERKIA

- **Irunberri:** Gaur *Bikingoak* lana antzetzuko du Kollins Clown taldeak, parrokiako zineman, 22:00etan.
- **Atarrabia:** Datorren asteartean *Las aventuras de Pelegrin* lana taularatuko du Arbole taldeak, haurrendako, Martiket igerilekuan, 18:30etan.

BESTELAKOAK

- **Iruñea:** Nafarroako Antzerki Eskolak hainbat ikastaro antolatu ditu. Abuztuaren 23tik 28ra Testutik agertokira ikastaroa emanen du Patrice Pavisek. Jose Tomek hartuko du haren lekukoa, ahots ikastaroarekin, abuztuaren 30a eta irailaren 3a bitarte. Egun be-

retan Antonio Simonek interpretazioa irakatsiko du. Abuztuaren 23tik 28ra, berriaz, umeentzako joko dramatikoak erakutsiko dute, eta irailaren 6tik 10era aktoreaz eta biomekanikaz ariko da Matthias Poppe. Informazio gehiago NAEko egoitzan (San

Agustin kalea 5, Iruñea) edo 948-229239 telefonoan.

- **Tafalla:** Jose Mari Azkona II. Zezenei Buruzko Argazki Lehiaketa antolatu du Zezen Elkarteak. Argazkiak zuri-beltzean zein koloreetan aurkez daitezke —sei gehienez—, baina gaiak zezenekin zeriku-

sta izan behar du. Lanak irailaren 30a baino lehen igorri behar dira. Helbidea: Club Taurino Tafalles, Plazuela de los Auroros 1, 2A. Tafalla.

- **Etzarri-Aranatz:** Ortzadar Euskal Folklore taldearen dantza saioa bihar pilotalekuan, 10:30etan.

Arestiren liburutegia

Castelao nos



O enfeitizado.

Begizkoarekin.